



Mutrikuko Udala

ARAUTUTAKO HIRIKO APARKAMENDU ZERBITZURAKO ORDENANTZA (TAO)

Mutrikuko Udalak, bere eskumenen barruan, herritarren beharrak betetzen lagungarri izan daitezkeen era guztietako ekintzak bultzatu eta nahi hainbat herri-zerbitzu eskaini ditzake.

Aparkamendu arloan dagoen eskariari erantzun nahi izateagatik, ingurumenaren kalitatean duen zuzeneko eraginagatik eta herri garraioen eta oro har trafikoaren arintasunean duen ondorioagatik, aparkamendua arautzeko orduan, beharrak, eskura dauden espazioen erabilera eta diru aldetik horrek dakartzkien ondorioak herritar guztien artean zuzen banatzeko moduko irizpideak kontuan hartzen saiatu behar du.

Hiriko aparkamendu zerbitzua hobeto arautzearren ondorengo arauak ematen dira:

1. artikulua.

Ordenantza honen xedea Udalak araututako hiriko aparkamendu zerbitzurako arauak ezartzea da.

2. artikulua.

Udalak araututako aparkamendu sistema Udalaren herri zerbitzutzat joko da.

3. artikulua.

Ordenantza honek araututako sektorea Saturrarango aparkalekua da.

Tokiak dituen mugak, zoruaren egoerak, eta iraganean gertatu diren era askotako arazoak direla eta, aparkaleku hori motorrentzat eta kotxeentzat gordeko da. Berariaz debekatuta egongo da autokarabanak eta 3.500 kg baino gehiagoko pisua duten ibilgailuak bertan lagatzea.

4. artikulua.

Asteko egun guztietan arautuko da ibilgailuen aparkamendua, 10:00etatik 20:00etara, ekainaren 1etik irailaren 30era.

5. artikulua.

Adierazitako tokietan aparkatzeko, erabiltzaileek beharrezko txartela hartu beharko dute horretarako ipiniko diren makinetatik. Udalak onartutako prezioetan eskuratu ahal izango dira.

Aparkatzeko gutxieneko denbora 60 minututakoa izango da eta gehienez ere, 3 ordurarteko zatikiengatikako txartelak lortu ahal izango dira. Hala ere, kasu berezietan, aparkatzeko denbora luzatu ahal izango da tarifa berezia ordainduz.

6. artikulua.

Txartela ibilgailuaren haizetakoaren azpiko aldean ipini beharko da kanpotik erraz eta ongi ikusteko moduan.

7. artikulua.

Aparkamenduaren iraupena ez da aparkatze-txartelean adierazitakoa baino luzeagoa izango. Adierazitako denbora pasa ondoren, txartel berri bat hartu beharko da aparkatze denbora berri baterako.

8. artikulua.

Zamalanetarako guneak horretarako erabiliko dira baimendutako ordutegian eta berezkoak dituzten baldintzetan eta txartelik gabe aparkatu ahal izango dute. Zamalanetarako ordutegitik kanpo, gune horiek arautan aurrekusitakoaren menpe geratuko dira.



Mutrikuko Udala

9. artikulua.

Indarrean jarraituko dute erasandako guneko kale bakoitzean ezarrita dauden seinale mugatzaile bereziek (gelditzeko debekua, bus geltokia, taxiak, zamalanetarako guneak, motoentzako tokiak, e.a.).

10. artikulua.

10.1. Hiri izaerako Bide Publikoetan Erabilerak, Trafikoa, Zirkulazioa eta Segurtasuna arautzeko Ordenantzan xedatutakoaren arabera, ordenantza honetan ematen diren aparkatzeko eta gelditzeko arauetako edozein hausten bada, ibilgailua geldiarazi ahal izango da, eta/edo garabiak erretiratu eta udal gordailura eraman.

10.2. Hala eta guztiz ere, isun hori deuseztatu daiteke baldin eta makinetan horretarako den txartela eskuratzen bada. Deuseztapen horrek eragina izan dezan beharrezkoa izango da ordubete ez igarotzea aparkamendu txartelean adierazita dagoen bukatzeko orduaz geroztik eta udaltzainari aparkamendu txartela aurkeztea isuna ezeztatzeko txartelarekin batera.

11. artikulua.

Txartela ez edukitzea, hura gaizki erabiltzea eta aparkamenduan denbora gehiegi egotea Hiri izaerako Bide Publikoetan Erabilerak, Trafikoa, Zirkulazioa eta Segurtasuna arautzeko Ordenantzaren arabera zigortuko da, Ordenantza honetako 10. artikuluan esandakoaren kalterik gabe.

12. artikulua.

Txartelak iruzurrez erabiltzea 90,00 € arteko isunkin zigortuko da.

13. artikulua.

Aparkamendu txartela erabiltzeko orduan salbuetsita daude ondorengo ibilgailuen erabiltzaileak:

1. Gidaria barruan duten taxiak.
2. Minusbaliatuen ibilgailu egokituak, behar bezala baimenduta badaude, horretarako gordetako tokietan.
3. Zamalanetan ari diren ibilgailuak, horretarako bereziki jarritako gunetan.
4. Erreserba berezietan aparkatzeko baimena duten eta behar bezala identifikatuta dauden ibilgailuak.

14. artikulua.

Udalak egoki deritzon baimenak eman ahal izateko eskubidea gordetzen du mugatutako aparkamendu gunetarako eta dagokion aldirako. Horretarako udal bulegoetan egindako bereizgarriak erabiliko dira, dagokion tarifa ordaindu eta gero.

15. artikulua .

Ordenantza honetan araututakoa Gobernazio Batzordeak kontrolatuko du.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Hiri izaerako Bide Publikoetan Erabilerak, Trafikoa, Zirkulazioa eta Segurtasuna arautzeko Ordenantzan xedatu gabekoan, Trafikoa, Motoredun Ibilgailuen Zirkulazioa eta Bide Segurtasuna arautzen duen 18/1989 Legearen testu artikulatuak ezarritakoak aginduko du.

XEDAPEN DEROGATZAILEA

Gai honi buruz Ordenantza honen aurretik emandako udal agindu guztiak eraginik gabe geratuko dira.

AMAIERAKO XEDAPENA

Ordenantza hau indarrean jarriko da, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.



Mutrikuko Udala

ERANSKINA

TARIFAK

Ordenantza honetan araututako tarifen kopuruak honako hauek izango dira:

- a) Gutxieneko ordubeteagatik, 1,00 €
- b) 5 orduko bonoa, 4,00 €
- c) 10 orduko bonoa, 7,00 €
- d) Ordubeteko frakzio gehigarriak, 1,00 €
- e) Isunak baliogabetzea, 10,00 €

Egoiliarrek doako sarrera izango dute. Egoiliar izaera izango dute ibilgailua udalerrri honetan erroldatua dutenak.